barruan sartzen diren eraikin eta guneak ere bai, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean agindutakoari lotuko zaizkio baimenak emateko ihardunbideari, erabilpenari, ihardunari, babesari, zigorrei, arau–hausteei, eskuhartzeei eta gainerakoei dagozkienetan.

21. atala.– Ondasun higi–ezin horretan ihardunak gauzatzeko proiektuei buruz.

Ondasun higikaitz horretan iharduteko proiektuek honako hauek eduki beharko dituzte; oraingo egoerari eta proposatutakoari buruzko zehaztutako agiriak, 1/50eko eskalan, eraikuntza eta arkitektura–xehetasunak jasota 1/20ko eskalan bi kasu horietan, eta burutu behar diren ekintzei buruzko proiektu–memoriaren justifikazio zehatza.

Proposamenaren planoetan, aurrez finkatutako elementuen errekuperazioak eta proposatutako eskuhartzeak duten balioa justifikatu egin beharko da.

22. atala.– Lurrazpiko obrak.

Horren lurrazpian eragina izango duen obrarik egingo bada, esaterako, zimentazioak, azpiberritzeak, indusketak etab., Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiak onartutako arkeologi–proiektu bat eskatuko da, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 45–5 atalean xedatutakoaren esanera.

ciones y espacios incluidos en la Delimitación estarán sujetos, en cuanto a régimen de autorización, uso, actividad, defensa, sanciones, infracciones, intervenciones y demás extremos, a lo previsto en la Ley 7/1990 sobre Patrimonio Cultural Vasco.

Art. 21.– De los Proyectos de Intervención sobre el inmueble.

Los Proyectos de intervención sobre el inmueble, deberán incluir documentación detallada a escala 1/50 del estado actual y el propuesto, con detalles constructivos y arquitectónicos a escala 1/20 para ambos supuestos, así como justificación detallada en la memoria de Proyecto de las actuaciones a realizar.

Los planos de la propuesta deberán justificar la recuperación de los elementos prefijados y la validez de la intervención que se propone.

Art. 22.– Obras en el subsuelo.

En el caso de que se realizaran obras que afecten al subsuelo, tales como obras de cimentación, recalces, excavaciones, etc., se requerirá proyecto arqueológico aprobado por la Diputación Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, en virtud de lo dispuesto en el Art.-45-5 de la Ley 7/1990 de 3 de Julio.

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

1290

AGINDUA, 1995eko otsailaren 15ekoa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuarena, hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, lurren beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko proiektu tekniko eta azalpen-memoriei buruzkoa.

Hondakin inerteen eta inertizatuen kudeaketa-ihardunei aplika dakiekeen erregimen juridikoa finkatzen da azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuz. Dekretu horretan finkatzen denaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoaren administrazio baimenaren pean gelditzen dira, hondakin horiek kentzeko ihardunak instalatzea, areagotzea edo eraberritzea eta bai beteketak egitea ere. Horietaz aparte, honako hau ere xedatzen da dekretu horretan: lurren egokiketa egiteko ezinbestekoa izango dela, udal bakoitzak, dagokion ingurugiro-organuak txostena eman dezala eskatzea, udal-lizentzia eman baino lehen.

Hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, beteketen eta egokiketen proiektu teknikoen eta azalpen-memorien gutxienezko edukia ere finkatzen da azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan. Proiektu eta txosten horiek zehazki eta goitik behera definitu beharrak, aipatu den xedapena garatu beharra dakar dekretu

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

1290

ORDEN de 15 de febrero de 1995, del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, sobre el contenido de los proyectos técnicos y memorias descriptivas de instalaciones de vertederos de residuos inertes y/o inertizados, rellenos y acondicionamientos de terreno.

En virtud del Decreto 423/1994 de 2 de noviembre se procede al establecimiento del régimen jurídico aplicable a las actividades de gestión de residuos inertes e inertizados. El mencionado Decreto somete a autorización administrativa previa del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco tanto la instalación, ampliación o reforma de las actividades de eliminación de los mencionados residuos como la realización de rellenos y establece como requisito para la ejecución de un acondicionamiento de terreno el que los ayuntamientos respectivos soliciten, con carácter previo al otorgamiento de la licencia municipal, la emisión de un informe por parte del mismo órgano ambiental.

El Decreto 423/1994 de 2 de noviembre procede, asimismo, a la fijación del contenido mínimo de los proyectos técnicos y memorias descriptivas relativos a vertederos de inertes y/o inertizados, rellenos y acondicionamientos de terreno y es en este punto donde la necesidad de proceder a la definición de tales proyectos

horretako gehigarrizko xedapenean esaten denaren arabera, era honetan, azpiegitura horiei aplika dakizkiekeen baldintza teknikoak finkatu ahal izateko. Bestalde, azpiegitura horiek osatzen dute administrazio-baimenen muina.

Ondorioz, hondakin inerteen eta/edo inertizazioaren gai izan direnen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoan ezartzen denaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.– Hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, lur-beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko proiektu teknikoen eta azalpen-memorien edukina finkatzen duen Agindua onartzea.

2. atala.– Aurreko atalean aipatzen diren proiektu teknikoen eta azalpen-txostenen edukin teknikoa, agindu honetako I., II. eta III. eraskinetan finkatzen diren baldintzei egokituko zaie, hondakin inerteen eta/edo inertizatuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuko 5., 13. eta 15. ataletan xedatzen dena aplikatuz.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau argitara dadinean legeztatze-bideetan egon daitezen hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien titularrak, agindu honetan jasotzen diren xedapen teknikoei egokituko zaizkie, agindu hori indarrean jarri dadin egunetik hasi eta urtebeteko epearen barruan.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko otsailak 15.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

y memorias, de una forma más exhaustiva y detallada, obliga, de conformidad con lo dispuesto en su Disposición Adicional, a un desarrollo normativo de la norma de referencia, en orden a determinar los requisitos técnicos que son de aplicación a tales infraestructuras y que constituyen el núcleo fundamental de las autorizaciones administrativas.

En su virtud y de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final primera del Decreto 423/1994 de 2 de noviembre sobre Gestión de Residuos Inertes y/o Inertizados.

DISPONGO:

Artículo 1.– Aprobar la Orden por la que se establece el contenido de los proyectos técnicos y memorias descriptivas relativos a la instalación de vertederos de residuos inertes y/o inertizados, rellenos y acondicionamientos de terreno.

Artículo 2.– El contenido técnico de los proyectos técnicos y memorias descriptivas contemplados en el artículo anterior se ajustará a los requisitos fijados en los Anexos I, II y III de la presente Orden, en aplicación de lo dispuesto en los artículos 5, 13 y 15 del Decreto 423/1994 de 2 de noviembre sobre Gestión de Residuos Inertes y/o Inertizados.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los titulares de los vertederos de residuos inertes y/o inertizados en trámite de legalización en el momento de la publicación de la presente Orden, se adaptarán en el plazo de un año, a partir de la entrada en vigor de la misma, a las prescripciones técnicas que en ella se contienen.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletin Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 1995.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

I. ERASKINA
Inerte eta/edo inertizatuentzako isurtegiak

Hondakin inerte eta/edo inertizatuentzako isurtegiaren proiektu teknikoaren edukia.

I.– MEMORIA.

Honako alde hauek jasoko dituen ikerketa deskriptibo bat jasoko da bertan:

1.– Tokiaren egokitasuna.

a) Tokiaren egokitasuna, ingurugiro eta urbanizazioari dagozkienetan.

b) Isurtegiaren mugetatik, honako toki hauetara dagoen aldea:

– Herrira, urbanizazio mailan izan dezakeen garapena kontutan hartuta.

– Atseden eta astialdietarako guneetara.

– Errepide, ibai, toki heze, laku, laguna eta itsaslurguneetara.

– Estolda orokorrera.

– Horniketarako uren urtegi, ur-hartoki eta hoditerietara.

– Zingirak betetzeko eremuetara.

– Babespeko gune naturaletara.

– Aztarnategi arkeologikoetara.

c) Isurtegia kokatuko deneko lekuaren ikerketa geologikoa, geoteknikoa eta hidrogeologikoa. Eta lurrazpia eta bertako errekurtsoak ez kutsatzeko burutu beharreko ekintzei buruzkoa ere bai.

Honako datu hauek jaso beharko dira ikerketa horretan:

Geologikoak

– Sustratoaren izakera, material ezberdinei, horien potentziari eta horien alterazio eta alterabilitate graduari buruzko xehetasunak emanez.

– Isurtegiaren eta honen azpiegiturak behar den bezala ustiatzearen gain eragina izan dezaketen garrantzizko estrukturen (hapurdurak, kabalgamenduak, diaklasak, eskistositateak, juntak, etab.) lekua eta horiei buruzko xehetasunak.

– Isurtegiak hartzen duen eremuan dauden lur ezberdinen eta azaleko estalduren lekua eta hiriei buruzko xehetasunak, kolubioei buruzkoak eta azaleko materialak higitu izanaren ondorioz egin diren beteketei buruzkoak.

– Lekuak jasan ditzakeen arriskuen ebaluazioa, uholde arriskuei, lubiziei edo lur-inestabilitateei eta arrisku eolikoei emango zaiela lehentasuna.

Hidrogeologikoak

– Sustratoaren permeabilitatearen kuantifikazioa, isurketa-eremuan ematen diren litologia ezberdinen baloraketa eginez. Agian egon daitezkeen infiltrazioguneak topatu beharko dira.

– Urbegiak topatzea eta horien inbentarioa egitea

ANEXO I
Vertederos de Inertes y/o Inertizados

Contenido del proyecto técnico para vertedero de residuos inertes y/o inertizados.

I.– MEMORIA.

Comprenderá un estudio descriptivo sobre los siguientes aspectos:

1.– Idoneidad del Emplazamiento.

a) Idoneidad de la localización desde el punto de vista medioambiental y urbanístico.

b) Distancia de los límites del vertedero a:

– Nucleos de población, teniendo en cuenta las previsiones del desarrollo urbanístico.

– Zonas recreativas y de esparcimiento.

– Carreteras, vías fluviales, humedales, lagos, lagunas y zona marítimo terrestre.

– Red General de Saneamiento.

– Embalses, captaciones y canalizaciones de agua para abastecimiento.

– Areas de recarga de acuíferos.

– Espacios naturales protegidos.

– Yacimientos arqueológicos.

c) Estudio geológico, geotécnico e hidrogeológico del lugar de localización y de las acciones a desarrollar con el fin de evitar posibles contaminaciones del subsuelo y sus recursos.

Deberá incluir los siguientes datos:

Geológicos

– Naturaleza del sustrato caracterizando los diferentes materiales, potencia de los mismos, su grado de alteración y alterabilidad.

– Localización y caracterización de estructuras significativas (fracturas, cabalgamientos, diaclasas, esquistosidad, juntas, etc.) que puedan afectar a la correcta explotación del vertedero y sus infraestructuras.

– Localización y caracterización de los diferentes suelos y recubrimientos superficiales existentes en el ámbito del vertedero así como coluviones y otros rellenos fruto de la removilización de materiales superficiales.

– Evaluación de los riesgos a que pueda estar sometido el emplazamiento priorizando riesgos de inundación, deslizamientos o inestabilidad de ladera y riesgos eólicos.

Hidrogeológicos

– Cuantificación de la permeabilidad del sustrato, valorando cada una de las diferentes litologías, presentes en el área de vertido. Se localizarán posibles zonas de infiltración.

– Localización e inventario de puntos de agua, (agua

(ur hipodermikoa, surgentziak, azaleko ubideak, iturburuak, ur-harlekuak). Neurtutako uretorrien sisteman agian egon daitezkeen sarrerak definitu beharko dira eta bai horien kimismoa ere.

Geoteknikoak

– Isurketak hartzen duen eremuan zehar lurrak duen eraman-gaitasunaren kalkulua eta erresistentzia eta deformazio mailako parametrorik nabarmenenak, honela, lurrean botako den masaren estabilitatea kalkulatu ahal izateko.

Lurrak, geologia, hidrogeologia eta geoteknia mailan dituen aldeak ezagutu ahal izateko, hainbat kata egin beharko dira medio mekanikoez baliatuz eta harkaitz sanoa azaldu arte.

Behar hainbat kata egingo dira, honako hauen arabera:

– Litologiari dagozkionetan sumatu daitezkeen aldaketak.

– Lurren izakeran eta lodieran eman daitezkeen aldaketak.

– Urik dagoen ala ez.

Azaleko geologiari buruzko datuak errekonozimendu-indusketa bertikalez osatu beharko dira. Hauek, permeabilitate-saiaketak egiteko ere balio izango dute.

Errekonozimendu-indusketa bertikalak, honako baldintza hauek betez egin beharko dira:

– Indusketa %80tik gorako etengabeko lekukoa berreskuratuz.

– Indusketaren gutxieneko sakontasuna: 15 m.

– Hodi bikoitza duten bateriak erabiliz.

– Lekukoak hartzeko gutxienezko diametroa: 62 mm.

– Meteorizazio, R.Q.D. eta junten jauskera gradua finkatuz.

– Zeharkatutako litologia finkatuz.

– Egon dauden maila freatikoen sakontasuna finkatuz.

– Indusketak hartzen duen eremu osoan zehar ura zurgatze-saioak egingo dira, horretarako, Lugeon metodoa edo antzekoren bat erabiliko dela. Zurgatutako uraren bolumenaren eta lurraren permeabilitatearen (m/seg.-ko) emaitzak eman beharko dira aditzera.

– Hondakin inertizatutakoentzako isurtegien kasuan, pulse test edo slug test metodoez baliatuz egingo dira permeabilitate-saioak.

Indusketez eta perfil elektriko edo sismikoez baliatuz osatu ahal izango dira saio hauek.

Isurketak hartuko dituen lurraren erresitentziaren ezaugarriak finkatu ahal izateko, gutxienez SPT erako edo baliokideko 2 saio egin beharko dira lur-moeta bakoitzarentzako.

Azpiegitura-obretan egin beharreko beteketa-ezponden eta lurrerauzketa-ezponden estabilitatea kalkulatu ahal izateko, erresistentzi eta trinkotasun parametroak eta barne igurtzimendu-angeluak definitu beharko dira, bai botako diren hondakinena eta bai harkaitzena hipodérmica, surgencias, cauces superficiales, manantío, captaciones....) definiendo las posibles entradas en el sistema caudales medidos y su quimismo.

Geotécnicos

– Cálculo de la capacidad portante del terreno en todo el área de vertido así como los parámetros de resistencia y deformación más relevantes a efectos de calcular la estabilidad de la masa vertida sobre el terreno.

A efectos de conocer la naturaleza del terreno en los aspectos geológicos, hidrogeológicos y geotécnicos deberán realizarse una serie de catas con medios mecánicos hasta la aparición de roca sana.

Se realizarán cuantas catas sean necesarias en función de:

– cambios de litología apreciables.

– cambios de naturaleza y espesor de suelos.

– presencia de agua.

Los datos de geología superficial deberán ser completados por sondeos verticales de reconocimiento que servirán igualmente para la ejecución de los ensayos de permeabilidad.

Los sondeos verticales de reconocimiento deberán realizarse con las siguientes condiciones:

– Sondeo con recuperación de testigo continuo superior al 80%.

– Profundidad mínima del sondeo 15 m.

– Utilización de baterias de doble tubo.

– Diámetro mínimo de la toma de muestras 62 mm.

– Determinación del grado de meteorización, R.Q.D. y buzamiento de las juntas.

– Determinación de la litología atravesada.

– Determinación de la profundidad de niveles freáticos existentes.

– Se realizarán pruebas de absorción de agua a lo largo de todo el sondeo mediante el método Lugeon o similar expresando los resultados en volumen de agua absorbida y permeabilidad del terreno en m/seg.

– Para vertederos de residuos inertizados los ensayos de permeabilidad se realizarán mediante métodos pulse test o slug test.

Estos ensayos podrán completarse mediante sondeos y perfiles eléctricos o sísmica.

Con el fin de determinar las características de resistencia del suelo que soportará el vertido se realizarán un mínimo de 2 ensayos SPT o equivalente para cada tipo de suelo.

Para poder calcular la estabilidad de los futuros taludes de relleno así como los taludes de desmonte a ejecutar en las obras de infraestructuras se definirán los parámetros resistentes cohesión y ángulo de rozamiento interno tanto de los residuos a verter como de la roca.

ere. Eskura daitezen parametroen arabera justifikatuko dira behar den bezala, onartutako irtenbideak.

d) Landareriaren eta lurraren erabileraren analisia.

– Eskualdean ematen diren landare-komunitateen azalpena, honako hauek kontutan hartuz: bitxitasuna, urritasuna, heldutasuna eta konserbazio eta errepresentatibitate gradua.

– Lurren erabilpenen azalpena.

e) Ikerketa meteorologiko osoa, honako hauek jasoz: eskualdeko plubiometria, haize erregimena, tenperatura, hezetasuna, lurrinketa, etab.

2.– Azpiegiturak

a) Eskualdearen behar bezalako drenaiaren ikerketa eta taiuketa, honako ezinbesteko baldintza hauek betez:

– Arroa garbitu, konpaktatu eta egokitzea.

– Eskatzen den permeabilitatea ez baldin badu lekuak, artifizialki inpermeabilizatuko da arroa, lixibiatutako ur guztiak behar bezala jasoko direla ziurtatuko dela era horretan.

– Ur meheak batzea eta bideratzea, isuri den masa urekin ez dadila nahastu lortuz. Horretarako, isuraldeak eta ur meheen zenbatekoa kalkulatu beharko da, kanalizazioen eta axaleko drenaien ezaugarriak definituz. Axaleko urak botatako masaren azpitik igaro daitezen alboratu egingo da beti.

– Lixibiatutakoak batzea, bideratzea eta, beharrezkoa baldin bada, garbitzea, isurkinak uberka publikora eta biltegietara botatzeari buruz indarrean dauden arauetan xedatzen denaren arabera.

Lixibiatuekin produzitutakoak kalkulatu eta beroien ezaugarriak finkatu egin beharko dira, botako diren hondakin inerteen eta drenaiaren sarearen ezaugarrien arabera. Sare hau eta ur mehena, ezberdinak izango dira. Isurtegiaren barruan lixibiatutakoak pilatu ez daitezen lortu beharko da.

Lixibiatutakoak garbitzeko sistema agian jartzeko behar den bezalako lekua eta azalera finkatu beharko dira isurtegiaren barruan.

Hondakin inerteak eta inertizatutakoak batera hartzeko diren isurtegien kasuan, lixibiatutakoak botatzeko eta isurkin bakoitzaren monstrak hartzeko sareak antolatu beharko dira, bakoitza bere aldetik.

b) Zerbitzuen honako alde hauek definitu beharko dira:

– Zerbitzu eremua

– Urbanizazioa

– Ur eta elektrizitate horniketa

– Energia eta argiak banatzea

– Sarbideak

– Hustuketa eta mantenimendurako barne bideak

– Gurpilak garbitzeko instalazioak.

En base a los parámetros obtenidos se justificarán convenientemente las soluciones adoptadas.

d) Análisis de la vegetación y usos del suelo.

– Descripción de las comunidades vegetales existentes en la zona teniendo en cuenta aspectos como rareza, singularidad, madurez, grado de conservación y representatividad.

– Descripción de los usos de suelo existentes.

e) Estudio meteorológico completo que comprende el estudio pluviométrico de la zona, régimen de vientos, temperatura, humedad, evaporación, etc.

2.– Infraestructuras.

a) Estudio y diseño del adecuado drenaje de la zona, con los requisitos imprescindibles siguientes:

– Desbroce, compactación y acondicionamiento del lecho.

– En el caso de que la ubicación no cumpla con la permeabilidad exigida se deberá contemplar la impermeabilización artificial del lecho asegurando la completa y correcta recolección de todas las aguas lixiviadas.

– Recogida y canalización de las aguas de escorrentía, impidiendo que las mismas entren en contacto con la masa vertida. Para ello se calcularán las cuencas de aportación y caudales de escorrentía correspondientes, definiendo las características de las canalizaciones y drenajes superficiales. Se evitarán, siempre que sea posible, las canalizaciones de aguas superficiales por debajo de la masa vertida.

– Recogida y canalización de lixiviados y depuración de los mismos, si es preciso, de acuerdo con las normas vigentes de vertido a cauce público y a colector.

Se calcularán los caudales de lixiviados producidos, las características de los mismos de acuerdo con los residuos inertes a verter, y las características de la red de drenaje siendo esta red independiente de las de escorrentía. Deberá impedirse cualquier acumulación de lixiviados en el interior del vertedero.

Se deberá definir dentro del recinto del vertedero, una zona de ubicación y superficie adecuadas para la posible implantación futura de un sistema de depuración de lixiviados.

En el caso de vertederos destinados a la aceptación conjunta de residuos inertes e inertizados se deberán diseñar de forma independiente las redes de evacuación de lixiviados y de toma de muestras correspondiente a cada tipo de residuo.

b) Se definirán los siguientes elementos de Servicios:

– Área de servicios.

– Urbanización.

– Suministro de agua y electricidad.

– Distribución de energía e iluminación.

– Accesos.

– Viales interiores de descarga y mantenimiento.

– Instalación de limpieza de ruedas.

c) Lixibiatutakoen sarearekin lotura izango duten drenaia-tximiniak jarri beharko dira, axaleko geruzetako lixibiazio-urak batu ahal izateko.

d) Isurtegiaren perimetro osoa naturalki edo artifizialki ixteko modua deskribatu beharko da, bertarako sarrera libre egon ez dadin.

e) Isurtegia egiteko beharrezkoa den obrarako plana definitu beharko da.

f) Suaren kontra jarri beharreko ekipoak eta hartu beharreko neurriak definitu beharko dira eta bai sua geldiarazteko aldearen kokalekua eta dimentsioak ere.

g) Isurtegitik beherantzko uretan, gutxienez piezometro bat jarri beharko da, lurrazpitikako uretan agian egon daitezkeen eraginak kontrolatu ahal izateko.

3.– Ustiaketa

Isurtegia ustiatzeko, mantentzeko, seilatzeko eta ixteko planak egin beharko dira, bakoitzari buruzko plan bat.

1.– Ustiaketa plana:

Honako hauei buruzko datuak jaso beharko dira bertan:

a) Harketen kontrola:

1.– Ustiategiaren arduraduna.

Ustiaketaren arduradun bat izendatuko da. Bere ardurapean, erantzukizunpean eta zuzendaritzapean egingo dira ustiaketa-lanak.

2.– Ustiategiaren zuzendari teknikoa.

Ustiategiko zuzendari tekniko bat izendatuko da eta isurtegiak ongi funtziona dezanaren arduradun izango da berau. Isurtegia ihardunean dagoenean bertan egon beharko du zuzendariak, erdi mailako tituluduna izan beharko du eta hondakin arloari buruzko ezagutza bereziak izan beharko ditu eta bai horiek tratatzeko sistemei buruzkoak ere.

3.– Hondakinak hartzeko orduak.

Hondakinak hartzeko ordutegi finko bat ezarriko da, era honetan, isurtegira hondakinak sartzea araututa geldituko dela.

b) Sarbideak kontrolatzea.

Sarreren kontrola egiteko behar den bezalako sistema bat jarri beharko da instalazioaren sarreran.

c) Hondakinen sarrerako kontrola.

Hondakinak sartzeko baldintzak zehaztu egin beharko dira.

Hondakinak sartzeko kontrol-sistema zehaztu behar da.

– Hondakinen muestreorako sistema aleatorioaren definizioa.

– Monstra gertatzeko sistema definitzea.

– Aurrikusitako analisiak eta analisien parametroak. Puntu honetan, zera eman beharko da aditzera: analisia norbere laborategietan egiten den ala ez, isurtegiko instalazioetan edo kanpoan; edo norbereak ez diren laborategietan, nahiz publikoetan, nahiz pribatuetan, horretarako kontratatutakoetan.

c) Se diseñarán chimeneas de drenaje conectadas a la red de lixiviados para facilitar la recogida de las aguas de lixiviación de las capas menos profundas.

d) Se describirá el tipo de cerramiento natural o artificial en todo el perímetro del vertedero, a fin de impedir el libre acceso al mismo.

e) Se deberá definir el plan de realización de la obra para la construcción del vertedero.

f) Se definirán las medidas y equipos contraincendios a instalar, así como la situación y dimensiones de la zona cortafuegos.

g) Se diseñará, al menos, un piezómetro aguas abajo del vertedero para el control de posibles afecciones de aguas subterráneas.

3.– Explotación.

Incluirá un Plan de Explotación, un Plan de Mantenimiento y un Plan de Sellado y Clausura del vertedero.

1.– Plan de Explotación:

Incluirá datos relativos a:

a) Control de Recepción.

1.– Responsable de la Explotación.

Se indicará un responsable de la explotación a cuyo cargo y bajo cuya responsabilidad y dirección se ejecutarán los trabajos de explotación.

2.– Director Técnico de la Explotación.

Se indicará un director técnico de la explotación que será el encargado del correcto funcionamiento del vertedero. Este director deberá estar presente durante las horas de funcionamiento y poseer al menos titulación de grado medio con conocimientos específicos en el campo de los residuos y sus sistemas de tratamiento.

3.– Horario para la recepción de residuos.

Se establecerá un horario fijo de recepción que permita regular la entrada de residuos al vertedero.

b) Control de Accesos.

Deberá establecerse en la entrada de la instalación un sistema adecuado de control de acceso.

c) Control de Entrada de Residuos.

Se deberá definir las condiciones de entrada de los residuos.

Se definirá el sistema de control de entrada de residuos:

– Definición del sistema aleatorio de muestreo de residuos.

– Definición del sistema de preparación de la muestra.

– Analítica prevista y parámetros a analizar. En este punto además se indicará si la analítica se realiza bien en laboratorio propio, dentro o fuera de las instalaciones del vertedero, o bien en laboratorios ajenos, públicos o privados a contratar para tal fin.

– Isurtegian sartuko diren hondakinen zenbatekoa, kilotan edo bolumen gisa, ebaluatzeko sistema.

d) Hondakin onargarriak.

Hondakinak sortzen dituzten ihardunak eta horien ezaugarri fisiko-kimikoak kontutan hartuta (toxizitatea, hezetasuna, pF eta lortu den lixibiaketaren ezaugarriak), isurtegian onar daitezkeen hondakinen zerrenda definitu beharko da argi eta garbi. Hori dena, indarrean dauden legeetan esaten denaren arabera.

e) Ustiaketa metodoa.

Isurketaren prozesua zehaztuko da, horrek hartzen dituen bateratutako eragiketak aipatuz eta honako alde hauek bereziki:

– Hondakinak hartzeko guztirako eta eguneango gaitasuna, isurtegiaren iraunaldi onuragarriari buruzko kontsiderazioak sartuz.

– Hondakinen mugimendurako barne-bideak.

– Hustuketa eta isurketa guneak.

– Hondakinak zabaltzea eta konpaktatzea.

– Isurketa guneak eta ezpondak egitea, aurrikusitako konpaktazio-graduak, terrazen lodiera eta gehieneko retrankeoa eta ezponden gehieneko aldatzak.

– Terrazen seilaketa-sistema, moeta, ezaugarriak, lodiera, aldatzak eta seilaketa egiteko materialen nondikakoa.

f) Isurketen topografia

Isurtegiaren ustiaketarako lan guztiak hari atxikiko zaizkioneko isurketa-topografia eratu beharko da eta, ustiaketa metodoa eta lurraren topografia kontutan hartuta, isurtegiak urteetan zehar izango duen garapena zehaztuko da bertan. Bi urtetik bi urtera birraztertuko da topografia hau, ustiaketari hobeto egokitu ahal izateko.

Honako hauek jasoko dira bertan besteak beste:

– Beteketa edo isurketa hurrenkera.

– Terraza, ezponda eta bermeentzako aurrikusita dauden dimentsioak.

– Isurketaren kota bereziak eta isurtegiaren garapena ziurtatzeko bide izango diren lekukoen ubikazioa.

– Isurtegiaren beteketa neurtzeko bide emango duten hiru puntu altimetriko gutxienez definitzea.

Ustiaketa metodoaren eta isurketen topografiaren arabera, isurketek urteetan zehar izango duten garapena jasoko da planimetria egoki batez baliatuz, ustiategiaren eremuetako kotak eta mugak emango direla aditzera berorretan.

g) Kostuen analisia

Gutxienez honako hauek jaso beharko dira analisi honetan:

– Hasierako inbertsioak, makinak eta ekipoak barne.

– Amortizazio eta finantzaketa kostuak.
– Langile-kostuak.
– Ustiaketa aldian egingo diren inbertsioak.

– Sistemas de evaluación de las cantidades en peso o volumen de residuos que entran en el vertedero.

d) Residuos Admisibles

Se deberá definir claramente la relación de los residuos admisibles en el vertedero en función de las actividades que los originen y de sus características físico-químicas, toxicidad, humedad, pH y características del lixiviado obtenido, todo ello de acuerdo con la legislación vigente.

e) Método de Explotación.

Se describirá el proceso de vertido con indicación de las operaciones unitarias que comprende, haciendo hincapié en los siguientes aspectos:

– Capacidad total y diaria de recepción de residuos, incluyendo consideraciones sobre la vida útil del vertedero.

– Vías internas de movimiento de residuos.

– Zonas de descarga y de vertido.

– Extendido y compactado de los residuos.

– Formación de celdas de vertido y taludes, grados de compactación esperados, espesor y retranqueo máximo de las terrazas y pendientes máximas de los taludes.

– Sistema de sellado de las terrazas, tipo, características, espesor, pendientes y procedencia del material de sellado.

f) Topografía de Vertidos

Se diseñará una topografía de vertidos a la que se ajustarán todos los trabajos de explotación del vertedero y que en función del método de explotación y de la topografía del terreno, indicará el desarrollo del vertido a lo largo del tiempo. Esta topografía se revisará al menos una vez cada dos años al objeto de una mejor adaptación a la explotación.

Entre otros aspectos se contemplará:

– Orden de llenado o vertido.

– Dimensiones previstas para las terrazas, los taludes y bermas.

– Cotas características del vertido así como la ubicación de los testigos que sirvan de base de comprobación del desarrollo del vertedero.

– Definición de al menos tres puntos altimétricos de referencia para facilitar la medición de llenado del vertedero.

De acuerdo con el método de explotación y topografía de vertidos se recogerá mediante la planimetría adecuada el posible desarrollo del vertido a lo largo de la vida del vertedero, reflejándose tanto las cotas como los límites de las áreas de explotación.

g) Análisis de Costes

En este análisis se deberá incluir como mínimo:

– Inversiones iniciales, incluidas las de maquinaria y equipos.
– Costes de amortización y financiación.
– Costes de personal.
– Inversiones a realizar durante el periodo de explotación.

– Ustiaketa kostuak.
– Zainketa eta arta kostuak.
– Mantenimendu kostuak.
– Administrazio, aseguru, abal ... mailako kostuak.
– Seilaketa eta ixte kostuak
– Isurketa kanona, pta/t.-ko edo pta/m.^{3}-ko.

h) Makinak eta langileak

1.– Isurtegiaren ustiaketan eta kontrolean erabiliko diren makinak eta ekipoak definitu beharko dira, bai higikorrak eta bai finkoak ere.

Ustiaketa-makinekin batera, honako datu hauek eman beharko dira:

– Makinen ezaugarriak.

– Erabiltze eremuak, gaitasunak eta aurrikusitako ihardute-orduak.

– Mantenimendua.

Kontrol ekipoen barruan, horien ezaugarriak eta aplikazio eremuak zehaztu beharko dira.

Bestalde, egon dauden laborategi-ekipoak zehaztu beharko dira. Isurtegiaren barruko instalazioak kanpoan daudenetatik bereiztuko dira; kanpokoei dagokienez, adierazi egingo da kokalekua.

2.– Isurtegia ustiatzeko eta kontrolatzeko jarriko diren langileak nortzuk izango diren aditzera emango da; eta burutuko dituzten egitekoak eta izango duten ordutegia finkatu.

2.– Mantenimendu plana

Jasoko dituen xehetasunak:

– Ur meheen, lixibiaziokoen eta horiek sor ditzaketen ur geldien hodiei bereonean eustea eta horien kontrola.

– Lubiziak, isurkinen zapadura eta egonkortasuna, ezpondak eta alboko egiak.

– Inguruetako urbegiak, ezponda-oinak eta hoditeriak.

– Ustiatzeko eta arazteko instalazioak eta tresneria.

– Isurtegiak iraun dezan bitartean lixibiatuen kontrola zehaztu beharko da; kontrol bideak jarri beharko dira eta laginketa egin.

– Isurtegia ipintzeak daragiekeen gain-uren kontrola zehaztu behar da; hemen ere kontrol bideak jarri beharko dira eta laginketa egin.

3.– Seilatzeko eta ixteko plana.

Isurtegiak zarama gehiagorik ezin duenean hartu behin–betiko seilatzeari, lursailen zertarakoari eta lursailaren paisaia bereoneratzeari buruzko azterketa egingo da. Azterketa horretan, besteak beste, puntu hauek jorratuko dira:

– Instalazioaren eta azken bereoneratzearen ondoren hartuko duen itxura eta topografia.

– Zatika ixtearen aldiak eta isurtegiaren iraupenaldian egindako bete-lanak hartzen dituen aldeak bereoneratzea.

– Behin-betiko azken azaleztapen-geruzaren eta

– Costes de explotación.
– Costes de vigilancia y control.
– Costes de mantenimiento.
– Costes administrativos, seguros, avales, etc.
– Costes de sellado y clausura.
– Canon de vertido en ptas/t. o ptas/m.^{3}.

h) Maquinaria y Personal

1.– Se deberán definir la maquinaria y equipos tanto móviles como fijos que se vayan a utilizar en la explotación y control del vertedero.

Dentro de la maquinaria de explotación se deberá indicar:

– Características de las máquinas.

– Campos de utilización, capacidades, horas estimadas de funcionamiento.

– Mantenimiento.

Dentro de los equipos de control se deberán definir sus características y campos de aplicación.

Por otro lado se deberán definir los equipos de laboratorio de los que se disponga, diferenciando los que están dentro de las instalaciones del vertedero y fuera de ellas en cuyo caso se indicará su ubicación.

2.– Se deberá indicar el personal asignado a la explotación y control del vertedero especificando sus labores y horario.

2.– Plan de Mantenimiento

Indicará datos relativos:

– al mantenimiento y control de las canalizaciones tanto de aguas de escorrentía como de lixiviación y de los posibles asentamientos de las mismas.

– a los deslizamientos, asentamientos y estabilidad de la masa de vertido, taludes y laderas adyacentes.

– a las surgencias de aguas en los frentes, bases de taludes y canalizaciones.

– a las instalaciones y maquinaria de explotación y depuración.

– Se deberá definir el control de los lixiviados a realizar durante la vida de funcionamiento del vertedero, previendo los sistemas de control y toma de muestras.

– Se deberá definir el control de aguas superficiales que pueden verse afectadas por la instalación del vertedero, previendo los sistemas de control y toma de muestras.

3.– Plan de Sellado y Clausura.

Se realizará un estudio sobre el sellado definitivo y destino de los terrenos una vez agotada la capacidad del vertedero, así como sobre la recuperación paisajística del terreno. En este estudio se abordarán, entre otros, los siguientes puntos:

– Configuración y topografía finales de la instalación y de la restauración final.

– Etapas de cierre parcial y restauración de las zonas terraplenadas realizadas a lo largo de la vida del vertedero.

– Características de la capa final de recubrimiento y

zigilatuaren ezaugarriak: itxura, materiala, drenajeak, birlandaketak, ...

– Lursaila bihar-etzi zertarako erabil daitekeen eta tinko jarritako instalazioak erabiltzen ekin eta/edo kendu.

– Isurtegiaren kontrolerako, mantenimendurako eta ixteko plana burutu beharko da; plan horrek, gutxienez, isurtegia ixten denetik 10 urtera arteko epealdia hartuko du.

– Seilatzeak eta ixteak duten diru-kostua hartu beharko da kontutan, bai gaurregungo balorea eta bai isurtegiaren bizia amaitzen denean izango duen azken balorea kontutan hartuz.

4.– Ingurugiroarekiko alderdiak

a) Hondakinak garraiatzeak dakartzan arazoak aztertzea. Isurtegira doazen kamioen joan-etorriak trafikoa gehitzean duen eragina ere aztertuko da.

b) Helburu estetikoa izango duen landarezko estalkia, begibistara izan dezakeen eragina murrizteko eta haizeak material xume edo arinetan izan dezakeen eragina eragozteko.

II.– AZPIEGITUREN KALKULU JUSTIFIKAGARRIAK

III.– BALDINTZEN PLEGUA.
IV.– AURREKONTUA

Honako hauek adieraziko dira:

– Neurketak.
– Prezio bateratuen taula.
– Aurrekontu partzialak.
– Aurrekontu orokorrak.

V.– PLANOAK

Gutxienez, ondoren aipatzen diren planoak, egokitutako eskala dutenak, sartu beharko dira:

– 1:25.000 eskalako egoera-plano geografikoa.

– 1:5.000 eskalako kokatze planoa edo, beharko balitz, 1:10.000 eskalakoa.

– 1:5.000 eskalako partzelarioa.

– Ur meheen eremuak 1:5.000 eskalan.

– Materialen, egituren, gain-estalkien eta horien lekuko diren geruza geologikoak, 1:10.000 eskala baino txikiagotan.

– Isurtegiaren alorreko kartografia hidrologikoa; inbentarioan agertzen diren ur-iturburuak adieraziko dira 1:10.000 eskala baino txikiagotan.

– Isurtegiaren eta berorren azpiegituren eragin-aldearen mapa geoteknikoa. Hau ere 1:10.000 baino eskala txikiagotan.

– Plano takimetrikoak, hasierako eta bihar-etziko azken egoeraren sestra-kurbak hartzen dituela eta egite-asmoetan dauden instalazioen zehaztasunak erakutsiz.

• Oinplano orokorra.

sellado definitivo: configuración, material, drenajes, repoblación forestal, etc.

– Posible utilización del terreno y utilización y/o eliminación de las instalaciones fijas.

– Se deberá realizar un plan de control, mantenimiento y cierre del vertedero que abarque desde el cierre y clausura del vertedero hasta un período mínimo de 10 años.

– Se deberá valorar económicamente el coste de sellado y clausura, tanto a valor actual como a valor final una vez acabada la vida del vertedero.

4.– Aspectos Medioambientales

a) Estudio de la problemática del transporte de los residuos, analizándose el impacto derivado por el incremento de tráfico como consecuencia del tránsito de camiones hacia el vertedero.

b) Plan de creación de una pantalla vegetal con fines estéticos a fin de reducir el impacto visual, y al objeto de evitar la acción de los vientos sobre los materiales finos o ligeros.

II.– CALCULOS JUSTIFICATIVOS DE LAS INFRAESTRUCTUAS
III.– PLIEGO DE CONDICIONES.
IV.– PRESUPUESTO

Se indicará:

– Mediciones.
– Cuadro de precios unitarios
– Presupuestos parciales.
– Presupuestos generales.

V.– PLANOS

Se deberán incluir, como mínimo, los siguientes planos a escala adecuada:

– Plano geográfico de situación a escala 1:25.000.

– Plano de emplazamiento a escala 1:5.000 o en su defecto 1:10.000.

– Parcelario a escala 1:5.000

– Areas de escorrentía a escala 1:5.000.

– Representación cartográfica de los materiales, estructuras, recubrimientos superficiales y cortes geológicos representativos de los mismos a escala inferior a 1:10.000.

– Cartografía hidrogeológica del área del vertedero con representación de los puntos de agua inventariados a escala inferior a 1:10.000

– Mapa geotécnico del área de influencia del vertedero y sus infraestructuras. Igualmente a escala inferior a 1:10.000.

– Planos taquimétricos con las curvas de nivel del estado inicial y situación final futura con detalle de las instalaciones fijas que se proyecten:

• Planta general.

• Euri-urak husteko sarea: oinplanoa eta perfilak.

– Lixibiatuak husteko sarea: oinplanoa eta perfilak.

– Sarbideak: luzerako perfilak eta zeharkako sekzioak jasotzen dituen oinplanoa.

– Instalazioak.

– Elektra-estekaketa eta urez hornitzea.

– Urbanizazioa.

– Zerbitzu-guneak: bulegoa, baskula, gurpilak garbitzeko instalazioa.

– Itxitura: oinplanoa, zehaztasunak.

– Lursailaren luzerako eta zeharkako sekzioen planoa; isurketak egin aurreko kotak eta bai amaitu ondorengoak ere:

• Bulumenen kubikazioa.
• Beteketaren aldiak.

– Proiektuaren azalpen zuzenerako beharrezkoak diren zehaztasun-planoak.

– Beharrezkotzat jo dadin beste edozein plano.

Paperetan eta digitalizatutako disketean aurkeztu beharko dira planook, ARC-INFO formatoan edo ARC-INFOk edo DXFek erabil dezaketen formatoan.

II. ERASKINA

BETEKETAK

Beteketen instalaziorako proiektu teknikoaren edukia.

I.– MEMORIA.

Ondoren aipatzen diren alderdiei buruzko azalpen-azterketa jasoko du:

1.– Lekuaren egokitasuna.

Ingurugiroaren eta hirigintzaren aldetik lekuak eskeintzen duen egokitasuna.

2.– Azpiegiturak.

a) Beteketa egokiro egiteko beharrezkoak diren zerbitzuen azpiegitura zehaztuko da: kontrolerako etxola, urez hornitzea, sarbideak, hustuketako eta mantenimendurako barruko bideak, gurpilak garbitzeko instalazioa, ...

b) Aldibaterako itxitura naturalaren edo artifizialaren zehaztapena; beteketa-gunera oztoporik gabe sartzea eragozteko egongo da hori.

3.– Ustiaketa.

Honako xehetasun hauek jasoko ditu:

1.– Beteketaren arduradun teknikoa.

Beteketa-lanetarako arduradun bat jarriko da; eginkizun hori behar-bezala betetzeaz arduratuko da. Arduradun horrek gutxienez erdi mailako titulua izan beharko du eta berariazko ezagutzak hondakinen eta horien tratamendu sistemen alorretan.

2.– Sarbideen kontrola.

• Red de evacuación de pluviales: planta y perfiles.

– Red de evacuación de lixiviados: planta y perfiles.

– Accesos: planta perfiles longitudinales y secciones transversales.

– Instalaciones:

– Acometida eléctrica y abastecimiento de agua.

– Urbanización.

– Area de servicios: oficina, báscula, instalación de limpieza de ruedas.

– Cerramiento: planta, detalles.

– Plano de las secciones longitudinales y transversales del terreno con cotas antes de iniciarse el vertido y una vez finalizado el mismo:

• Cubicación de volúmenes.
• Fases de llenado.

– Planos de detalle necesarios para la correcta descripción del proyecto.

– Cualquier otro plano que se estime necesario.

Estos planos deberán presentarse en soporte de papel y disquete digitalizado en formato ARC-INFO o formato asumible por ARC-INFO, como DXF.

ANEXO II

RELLENOS

Contenido del proyecto técnico para la instalación de rellenos.

I.– MEMORIA.

Comprenderá un estudio descriptivo sobre los siguientes aspectos:

1.– Idoneidad del Emplazamiento.

Idoneidad de la localización desde el punto de vista medioambiental y urbanístico.

2.– Infraestructuras.

a) Se definirá la infraestructura de servicios necesaria para la correcta ejecución del relleno: caseta de control, suministro de agua, accesos, viales interiores de descarga y mantenimiento, instalación de limpieza de ruedas, etc.

b) Descripción del cerramiento temporal natural o artificial que deberá existir a fin de impedir el libre acceso al relleno.

3.– Explotación.

Incluirá los siguientes datos:

1.– Responsable técnico del relleno.

Se indicará un responsable técnico del relleno que será el encargado del correcto funcionamiento del mismo. Este responsable deberá poseer al menos la titulación de grado medio con conocimientos específicos en el campo de los residuos y sus sistemas de tratamiento.

2.– Control de accesos.

Sarbideak kontrolatzeko sistema egokia zehaztu beharko da.

3.– Beteketaren baldintzak.

a) Hondakin-kopurua eta horien nondikakoa adieraziko dira; hondakin horiekin beteketa egingo da.

b) Hondakinen garraioak sortzen dituen arazoak aztertzea. Kamioiek instalaziora egiten duten joan-etorriaren ondorioz trafikoa gehitzeak dakarren eragina aztertuko da.

c) Hondakinak isurtzeko prozesua deskribatzea. Izango diren eragiketa bateratuak adieraziko dira eta bai erabiliko den tresneria ere.

d) Hondakinak hartzeko erabateko eta eguneko gaitasunaren azterketa; beteketa burutzeko epeari buruzko oharpenak jasoko ditu.

e) Beteketa amaitu ondoren, inguruko paisaia bereoneratzearen eta lursailak bihar-etzi zertarako erabiliko direnaren azterketa.

II.– AURREKONTUA.

Honako hauek adieraziko dira:

– Neurketak.
– Prezio bateratuen taula.
– Aurrekontu partzialak.
– Aurrekontu orokorrak.

III.– PLANOAK

Planimetriaren barruan, gutxienez, ondoren aipatzen diren planoak, egokitutako eskala izango dutenak, sartu beharko dira:

– 1:25.000 eskalako egoera-plano geografikoa.

– 1:1.000 eskalako kokatze planoa edo, beharko balitz, 1:5.000 eskalakoa.

– Ur meheen eremuak 1:5.000 eskalan.

– Beteketa eremuaren kartografia hidrogeologikoa; inbentarioan sartutako urbegiak adieraziko dira 1:10.000 eskalan.

– Plano takimetrikoak, hasierako eta bihar-etziko azken egoeraren sestra-kurbak hartzen dituela eta egite-asmoetan dauden instalazioen zehaztasunak erakutsiz.

• Oinplano orokorra.
• Sarbideak.
• Instalazioak.
• Itxiturak.

– Lursailaren luzerako eta zeharkako sekzioen planoa; isurketak egin aurreko kotak eta bai amaitu ondorengoak ere adieraziko dira:

• Bulumenen kubikazioa.
• Beteketaren aldiak.

– Beharrezkotzat jo dadin beste edozein plano.

Paperetan eta digitalizatutako disketean aurkeztu beharko dira planook, ARC-INFO formatoan edo ARC-INFOk edo DXFek erabil dezaketen formatoan.

Deberá definirse un sistema adecuado de control de accesos.

3.– Condiciones del relleno.

a) Se indicarán las cantidades y procedencia de los residuos, con los que se va a realizar el relleno.

b) Estudio de la problemática del transporte de los residuos, analizándose el impacto derivado por el incremento de tráfico, como consecuencia del tránsito de camiones hacia la instalación.

c) Descripción del proceso de vertido de los residuos, con indicación de las operaciones unitarias que comprende, y la maquinaria a utilizar.

d) Estudio sobre la capacidad total y diaria de recepción de residuos, incluyendo consideraciones sobre el plazo de realización del relleno.

e) Detalle de la recuperación paisajística de la zona y destino de los terrenos, una vez finalizado el relleno.

II.– PRESUPUESTO.

Se indicará lo siguiente:

– Mediciones.
– Cuadro de precios unitarios
– Presupuestos parciales.
– Presupuestos generales.

III.– PLANOS

Dentro de la planimetría se deberán incluir, como mínimo, los siguientes planos a escala adecuada:

– Plano geográfico de situación a escala 1:25.000

– Plano de emplazamiento a escala 1:1.000 o en su defecto 1:5.000

– Areas de escorrentía a escala 1:5.000

– Cartografía hidrogeológica del área del relleno con representación de los puntos de agua inventariados a escala inferior a 1:10.000

– Planos taquimétricos con curvas de nivel del estado inicial y situación final futura con detalle de las instalaciones fijas que se proyecten.

• Planta general.
• Accesos.
• Instalaciones.
• Cerramientos.

– Plano de las secciones longitudinales y transversales del terreno con cotas antes de iniciarse el vertido y una vez finalizado el mismo:

• Cubicación de volúmenes.
• Fases de llenado.

– Cualquier otro plano que se estime necesario.

Los planos deberán presentarse en soporte de papel y disquete digitalizado, en formato ARC-INFO o formato asumible por ARC-INFO, como DXF.

III. ERASKINA

LURSAILAREN EGOKITZAPENA

I.– AZALPEN MEMORIA.

Dagokion lizentzia lortzeko, eskegileak, ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu udaletxean:

– Isurkin kopurua, nondikakoa eta moetak.

– Lursaila egokitzeko begiz jotako epea.

– Aldibaterako itxitura naturala edo artifiziala; beteketa–gunera eragozpenik gabe sartzeko egongo da hori.

Lursailaren egokitzapena amaitu ondoren, inguruko paisaia bereoneratzearen eta lursailak bihar-etzi zertarako erabiliko direnaren azterketa.

II.– PLANOAK.

– Egoeraren plano geografikoa 1:25.000 eskalan.

– Kokatze-planoa 1:5.000 eskalan.

– Plano takimetrikoak, hasierako eta bihar-etziko azken egoeraren sestra-kurbak hartzen dituela.

ANEXO III

ACONDICIONAMIENTO DE TERRENO.

I.– MEMORIA DESCRIPTIVA.

Para la obtención de la correspondiente licencia el solicitante deberá entregar al Ayuntamiento la siguiente documentación.

– Cantidades, procedencia y tipo de los residuos a verter.

– Plazo estimado de la realización del acondicionamiento de terreno.

– Cerramiento temporal natural o artificial a fin de impedir el libre acceso.

Detalle de la recuperación paisajística de la zona y destino de los terrenos una vez finalizado el acondicionamiento de terreno.

II.– PLANOS.

– Plano geográfico de situación a escala 1:25.000

– Plano de emplazamiento a escala 1:5.000

– Planos taquimétricos con curvas de nivel del estado inicial y situación final futura.

Iragarpenak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

1291

LEHIAKETA PUBLIKOA, 9 mm. Parabellum kartutxoak eskuratzeko dena.

Espediente zk.: S-061/95.

Herrizaingo sailburuaren aginduz, honako iragarpen hau argitaratzen da:

Kontratuaren xedea: iragarpen honen idazpuruan agertzen dena.

Presatasuna: espediente hau presakotzat jo du Herrizaingo sailburuak 1995eko otsailaren 2ko Aginduz.

Aurrekontua: lizitazioaren gutxigorabeherako aurrekontua berrogeita bost milioi eta seiehun mila (45.600.000) pezetakoa da.

Entregatzeko epea: administrazio klausula partikularren pleguaren azalean adierazten dena.

Bulegoak: administrazio klausula partikularren plegua, betekizun teknikoena eta lehiatzaileentzat interes-

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1291

CONCURSO PUBLICO para el suministro de cartuchería 9 mm. Parabellum..

Expediente n.º S-061/95.

Por Orden del Consejero de Interior se hace público el siguiente anuncio:

Objeto del contrato: la contratación que figura en el encabezamiento de este anuncio.

Declaración de urgencia: el presente expediente ha sido declarado de urgencia, según Orden del Consejero de Interior de fecha 2 de febrero de 1995.

Presupuesto: el presupuesto orientativo de la licitación es de cuarenta y cinco millones seiscientas mil (45.600.000) pesetas.

Plazo de entrega: lo dispuesto en la carátula del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Dependencias: el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el de Prescripciones Técnicas, así